

## Benidorm-go kroskoa.

Ekialdean, Benidorm-go senadi izugarria Peñas de l'Albir-en bukatzen da. Levanteko ekaitza edo hego-mendebaldeko haize bortitza zegoenean, aspaldiko belaontzientzat arriskutsuak ziren labarrez osatutako harresia. Babes hoberik ezean, itsasontzi batzuk ez ziren labarretara hurbiltzen itsaso txarrarekin, eta Loix-en txokoa izeneko hareazko hondo eta hondartza dituen kalatxo batean babesten ziren, senadiko iparraldeko muturrean. Baina guztiek ez zuten bere burua gordetzerik lortu, batzuek, haizearen eta olatuen indarrak bultzaturik Peñas de l'Albir-eko punta harkaiztsuetan bukatu zuten eta zama eta guzti hondoratu ziren. Alacantko unibertsitateko talde batek sustatu eta Valentziako gobernuak eta Kultura Ministerioak finantzatutako Marina Baixa eskualdeko ur-azpiko azterketa proiektuan zonalde hau aztertu zen 1990 hamarkadan. Behaketek antzinako itsas bideetan gune beltz bat zela baieztatu zuten. Gainazalean, anforak aurkitu zituzten, ardoa, olia edo arrain saltsa bezalako elikagaiak gordetzeko erabiltzen ziren zeramikazko ontzi erromatarrak. Eta honek bide eman zion azterketa sakonago bati. Urpeko inguruak ezartzen dituen zailtasunak zailtasun, arkeologiak, itsas hondoan, lehorrean besteko arreta eskatzen duen lan metodologia aukeratu behar du. Koadrikula handiak ezartzen dira, aurkikuntzak plano batean kokatu eta aztarnategiaren forma eta antolamendua ulertzeko. Xurgatze-mahuka erabiltzen da harea eta harkoskor sedimentuak kentzeko, balizko kroskoen sakonera eta ezaugarriak baloratu ahal izateko. Ondoren, piezen etiketatze egokiak, nahasterik gabe bere kokalekua eta beste aurkikuntzekiko erlazioa dokumentatzeko aukera ematen digu. Horregatik jaso aurretik objektu bakoitza kokatu eta argazkia ateratzen zaio. Aurkikuntzek leku honetan mendeetan zehar hondoratzeak egon direla erakusten digute. Zati batzuk III. mendean oliba olioia zeramaten anforenak dira. Batek zigilua dauka ekoizlearen siglekin, F.M.F.P., *Corduba* inguruko oliogile bat. Corduba, Bética probintzia erromatarraren hiriburua zen, Iberiar penintsularen hegoaldean kokatua. Beste pieza batzuk geroagokoak dira, VI. mendean Tunezen egindako plater hau esaterako. Santu kristau bat dauka apaingarrizat. Pieza hau Penintsula Iberiarraren zati handi bat, baita Balearrak ere, Bizantziar Inperioaren baitan zeuden garaikoa da. Urpeko arkeologiak prestakuntza handia eskatzen du, ez bakarrik urpekaritzan, baita ikerketarako tresneriaren erabilpenean ere; eta funtsezkoena, garai bakoitzeko objektu arkeologiko bereizgarrien ezagutza sakona. Kontu handiz atera behar dira piezak, zigiluak edo zeramikako apaingarriak bezalako aztarna galkorrak minutu gutxitan gal ez daitezen, iraganeko argazki ordezkaezinak baitira.